

DIRU-SARRERAK

Atal honetan azalduko dugu nola irabaziko dugun dirua, hau da, nola ordainduko duten gure bezeroak zerbitzu hau kontratatzeke asmoz.

Argi utzi nahi dugu gure enpresak bezeroen beharrak asetzea du helburu nagusizat, dirua irabaztea baino. Hala ere, enpresa mantentzeko beharrezkoa da diru sarrerak edukitzea eta horretarako metodo batzuk erabiliko ditugu:

❖ “CROWDFUNDING” (Enpresa hasteko kapitala lortzeko)

Modu honekin gure helburua enpresaren sorrerarako kapitala lortzea da. Beste erakunde batzuen diruarekin gure enpresa sortuko dugu. Nola gure enpresa benefikoa den, enpresa batzuk laguntza ekonomikoa egingo dutela espero dugu.

Diru hori eta gure kapitalarekin hau egingo dugu:

- Dendak eraiki
- Web orrialdea eta App sortzea

❖ IRAGARKIEN BIDEZ

Gure web orrialdean eta sakelako App-an beste enpresen iragarkiak ipintzeko aukera emango genien. Modu honetaz, bi enpresek onurak edukiko genituzke:

- HME: beste enpresarekin negoziatutako kostua irabaziko genuke.
- Beste enpresa: kostua ordainduko zuen baina publizitatea edukiko zuen.

Web orrialdean iragarkiak eskumaldean eta ezkerrean agertuko dira eta app-an ere bai.

❖ UDALETXEETATIK ETA EUSKAL JAULARITZATIK

Erakundeak izango dira gure bezero nagusiak. Beraz, gure helburua da hurrengoak: udaletxeei gure proiektua saltzea. Horretarako, haiekin bilera bat egingo dugu eta enpresaburuok gure proiektua azalduko dugu. Aurkezpen bat antolatuta izango dugu eta aste bat ondoren, haien erabakia emango dute (enpresa kontratatu edo ez).

Udaletxe bat kontratatu ostean, bere eskola eta institutu publiko guztiei haien janaria hartzeko baimena izango dugu. Haiek, janaria ez eman nahi arren, behartuta izango dira janaria emateko. Janari hori hurbilen dagoen dendara eramango dugu.

